

# noaia

**Martxoaren 8ko  
Adierazpen Instituzionala  
onartu du Udalak**

**Martxoaren 13an,  
"Laburbira" Sutezin**

**Sagastien kimaketari  
buruzko ikastaroa,  
Alkartasunaren eskutik**

**Motxila 21 taldearekin hasiko da**

## **IX. Soinurbil Musika Astea**





## Albisteak iruditan

# Euskaraz bizitzeko sustapen lanekin jarraitzeko asmoa

**H**erri eragile desberdinetako ordezkariak elkartu ziren pasa den astean Potxoenean. Guztia, Usurbilen euskaraz bizitzea sustatzeko zer egin zitekeen aztertze asmoz. Bertaratu zirenek hain zuzen, herritar gehiagoren parte hartzea komenigarritzat jo zuten. Neurri batean, duela bi aste argitara eman genuen albistearekin lotuta dago bilkura hau. Gurasoek seme-alabekin euskaraz mintzatzeko joera duten arren, seme-alabarik ez dagoen uneetan gurasoak elkarren artean erdaraz komunikatzeko ohitura handiagoa dutela. Soziolinguistika Klusterreko euskararen erabilera neurketak eman zuen datu hori.



Potxoenean elkartu ziren herriko talde ezberdinetako kideak.

## Laburrean

### Bonolotoko saritu bat, Urbilen

47.567 euro irabazi zituen aurreko astean, Urbil merkatal guneko loterien administrazioan Bonolotoan jokatu zuen lagun batek. Joan den urritik, saltoki honek banatzen duen hirugarren saria da honakoa.

### Dantza Taldearen historia jasoko duen liburua

Usurbilgo Dantza Taldearen historia jasoko duen liburua prestatzen dabil. Materialik duen edonork utzi nahiko balu, argazkiak bereziki, dantzataldea@usurbil.com helbidera idatzi edo 650 422 601 zenbakira deitu dezala.

### Mertxe Aizpurua, Udalbiltzako lehendakari

Martxan da Udalbiltza berria. Usurbilgo Udaleko alkate Mertxe Aizpurua izango da udal hau-tetsiak biltzen dituen erakunde honetako lehendakari berria. Udalbiltza berriarekin bat egin dutenak 1.257 udal ordezkari dira guztira.

# noaqua

Kultur Elkarte  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkarte@noaqua.com /// www.noaqua.com  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeka.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Arantxa Zulaika,

publizitatea@noaqua.com.

#### Diseinu berria:

Erroitiz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.com:

Imanol Ubeka, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

#### Banaketa:

Olatz Rezola, Lurdes

Kamino.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregerai eta Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

## Hitz potoloez hitz bi

**1** 976ko martxoaren 3an Espainiako Poliziak Gasteizen Asisko San Frantzisko elizaren barnean bost langile hil zituen. Sarraskiaren 37. urteurrena izan berri da beraz, eta Martxoak 3 elkarteak zera eskatu dio Espainiako estatuari: eraginiko "mina" aitortzea.

Egun horretako Berrian, Cesar Arrondok gutun bat eman zuen argitara, "Martxoaren 3a: egia, justizia, erreparazioa", izenburupean. La Plata (Argentina) Unibertsitateko irakaslea da Arrondo eta "diasporakook ere elkartsunez bat egiten dugu 1976ko martxoaren 3an gertatutako erailketak oroitarazteko ekitaldiekin, eta egia, justizia eta erreparazioa galdegiten (...)".

Tamalez, maiz entzun ditugun aldarrikapenak dira hauek. XX. mendean gauza batzuk oso gaizki egin diren seinale. Nola ulertu, bestela. Hainbeste eta hain diferente dira egia, justizia eta erreparazio eske ditugun taldeak eta gizabanakoak.

Ez dira azaleko kontuak horiek. Hitz potoloak dira egia, justizia, erreparazioa. Izugarrikeria guztietan agertzen diren aldarrikapenak. Hemen eta munduko beste edozein tokitan. Baina ez dugu urruti joan behar, gure

ingurune hurbilean asko dira aldarrikapen horiek egiten dabiltzan kolektiboak, gizabanakoak. Adibide batzuk hementxe.

Torturak jasan dituzten ia 200 lagunek parte hartu dute *Oso latza izan da. Tortura en Euskal Herria* liburuan. Justizia eta erreparazioa aldarrikatu zuten torturak jasan dituzten pertsonentzat. 2012ko abenduaren 1ean hala jaso zen naiz.info web orrialdean.

Hilabete batzuk lehenago, 2012ko otsailaren 4an hain zuzen (hala jasoa dago berria.info web orrian), hauxe zioen Idoia Mendiak, artean Eusko Jaurlaritzako bozeramale zela. "Garrantzitsua da biktima guztiei justizia, aitortza eta erreparazioa egitea". Erroka nagusia "memoria partekatu bat lortzea" dela, hori ere esaten zuten Mendiak. ETAren jardunak ez duela bueltarik eta egiaztatze batzordea lanean serio ari zela gaineratu.

Gorripidea kolektiboaren blogari lotuta ere topatu dut hiruko sakratua, titular honetan jasoa: "Egia, Justizia, Erreparazioa. Ez Errepikatzeko". Goiburu hau duen idatzia 2009ko urriaren 7an eman zen argitara: "Iraganari buruz egia esaten badugu, aka-

so gauza izango gara orainari buruz egia esateko. Gure eskuetan dago lurpean hainbeste urteetan gordeta egon den historia berreskuratzea. Egia lortzea. Asko egin dugu, baina gehiago egiteko gelditzen zaigu. Noiz arte justiziarik gabe?". 36ko gerran frankistek fusilatutakoez mintzo dira.

Bilaketa azkar batean jasotako emaitzak dira zenbatu ditudan adibide hauek guztiak. Batek baino gehiagok akaso, erabileraren erabileraz, ahultzen joan ote diren aldarrikapenak direla pentsatuko du. Baliteke. Baina hori baino sakonagoa da kontua. Alegia, iritzi-artikulu honetan zenbatu ditudan adibide denek dute premiasun handi bat, denek dute aitortza-eske larri bat.

Horregatik diot, ez gara oso fin ibili azken hamarkadetan. Itxi gabeko zauriei beste zauri batzuk batuz joan zaizkiolako herri honi. Eta zauri zaharrak eta ez hain zaharrak, ixteke daude oraindik. Baina ez daude bi zauri mota bakarrik. Konplexuagoa da asuntua. Esate baterako, badira 36ko gerra pairatu ondoren, ETAren indarkeria pairatu duten familia sozialistak. Badira, 36ko gerra pairatu eta gero, Estatuaren segurtasun indarren indarkeria pai-

ratu duten sozialistak ere (edota sozialista-abertzaleak, nahi bezala). Batean zein bestean lerratzeak joerak nagusi dira oraindik baina argi ibili behar da gero, eremu konplikatua baita saminarena. Pertsonala. Emozioei lotua.

Azken kontu honen eskutik dator beste hitz potolo bat: berradiskidetzea. Asko aipatu da azken bi urteotan. Maiz aipatuagatik, ez pentsa bere horretan etorriko denik. Lanak izango ditugula oraindik. Hala ere, ez nuke etsipenean kokatu nahi. Alderantziz. Pauso batzuk eman dira, batzuentzat gutxiegi. Gehiago eman beharko direla pentsatuko dute askok. Baliteke.

Azkenaldian ikusi ditudan argazki batzuk, ordea, oso atseginak egin zaizkit. Gazte Zukgua taldeko kideen eta Juventudes Socialistas de Euskadi-Egazeko kideen arteko bilera jasotzen duen argazkia, esate baterako. Irribarrez ageri ziren, gainera.

Denok elkarren lagun izatea ez da erraza izango. Ez du zertan horrela izan behar gainera. Baina hurkoa, aldamenekoa etsaitzat ez hartzea, osasungarria izateaz gain, pauso handia dela uste dut. Etorbizuna gailentzen has dadin bebingoz.


Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre

## Saharako bandera udaletxeko balkoian



Otsailak 27 batean aldarrikatu zen Saharako Errepublika. 37 urte bete dira aurtan eta Udalak Saharako bandera udaletxeko balkoian zintzilikatu zuen.

## Atalluko larrialdi gunea tokiz aldatu da



"Atalluko larrialdi gunea lekuz aldatu da. Orain Garbiguneko sarreraren ondano dago", ohar hau helarazi digu Usurbilgo Udalak. Argibideak, irudian.

# Martxoaren 8ko Adierazpen Instituzionala onartu du Udalak

**A**ralar, Bildu eta PSE-EE udal taldeek, martxoaren 8ko Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira aurkezturiko Adierazpen Instituzionala aho batez onartu zuen udalbatzak, azken osoko ohiko bilkuran.

Parekidetasun alorraz arduratzen den gobernu taldeko kide Enara Arbizuk irakurri zuen adierazpenean, besteak beste, egun aplikatzen ari diren murrizketek urteetan borrokatutako emakumeen eskubideen galera dakartela salatzen da. "Atzerakada horren adierazgarri ditugu, batetik, abortuaren legearen erreforma iragartzen ari direla" eta pertsonak zaintzeko laguntzen murrizketa.

## BALIABIDEEN PREMIA

Testuak, emakumeen bizimodu duintasuna, eta gorputz eta bizitzaren jabe, subjektu politiko eta etorkizun politikoaren zuzeneko eragile izan behar direla aldarrikatzen du. Horretarako ordea, funtsezko zat jotzen da, erakundeek berdintasunerako politiktarako baliabideak jartzea. Horregatik, horiek kentzeko "erreforma oro guztiz gaitzetsi egingo dugu" dio udalbatzak onarturiko testuak.

Mozioak gainera, alor honetan Udalak dituen zenbait lehentasunen berri ematen



Otsailaren 26ko osoko ohiko bilkuran onartu zen mozioa.

du: berdintasun politika publikoak garatzea, udal gobernu-ekintzek genero-ikuspegia

kontuan hartzea, emakumeen elkarrekin elkarriketa politikoa indartzea edota indarke-

ria matxistaren aurkako eta berdintasunerako politikak etengabe uztartzea.

## Emakumeon Eguneko hitzorduak

### Martxoak 1-15

"Usurbilgo emakumeak protagonista" argazki erakusketa, Oiardo Kiroldegian eta Artzabalen.

### Martxoak 6, asteazkena

**18:30** Emakumeon eskubideen aldeko palakadak! Emakumeen binakako pala txapelketa frontoian.

### Martxoak 7, osteguna

**17:00** Mural pintaketa frontoian.  
**18:30** Emakumeon eskubideen aldeko palakadak! Emakumeen



binakako pala txapelketa frontoian.

**21:00** Bertso-afaria Artzabalen, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Amaia Agirrerekin. Itziar Sanz de Ojerren "Gozamenez" klown bazarriketa. Sarrerak 15 eurotan salgai, Txiribogan eta Artzabalen. Antolatzailea: Usurbilgo Pareki-

detasun Kontseilua.

**Laguntzailea:** Bota Punttuba Bertso Eskola.

### Martxoak 8, ostirala

**17:30** Gazteentzako oka jolas feminista Mikel Laboa plazan (eguraldi txarrarekin, frontoian).  
**23:00** Kontzertu gaua Usurbilgo Gaztetxean: Mutxurdinak (Usurbil) eta Ddik (Irun).  
Ondoren, kulero karrera eta karaoke feminista!  
Antolatzailea: Itaya Gazte Asanblada.

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

**EROSKI/city**

kale Nagusia 10, USURBIL

943 361182

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**

663 08 76 71 • 943 24 34 65

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

# 197/2006 doktrina bertan behera uzteko eskaera egin du Udalak

**I**azko uztailen Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak aho batez Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren 197/2006 doktrina “ez legezkoa eta oinarritzko eskubideen aurkakoa dela ebatzi ondoren, berau bertan behera uzteko eskatzen du udal honek. Ondorioz eta nazioarteko giza eskubideen legeria aplikatuz, 197/2006 doktrina aplikatu zaien euskal preso guztiak berehalakoan aske uzteko eskatzen dugu”.

Otsailaren 26ko oso ohiko bilkuran, Bilduk eta Aralarrek batera aurkeztu eta babesturiko mozioaren eskakizunetako bat da hau. PSE-EE, Hamaikabat eta EAJ-PNV abstenitu ziren. Honez gain, “Euskal Herrian bizi dugun itxaropen eta konponbide aukeraren aurrean, euskal presoen aurkako salbuespeneko legeria bertan behera uzteko eskatzen du udal honek”.

## 83 PRESORI EZARRI ZAIE DOKTRINA HAU

Ebazpen honen berri, herri-tarrei eta Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako Komisionatua den Nils Muiznieks Jaunari ematekoak dira. Testuak, doktrina honek eragindako ondorioak zenbakitan ere jasotzen ditu: “83 euskal preso politikori ezarri zaie doktrina. Horietako 12, garaian ezarritako kondenaz gain doktrinaren kondena luzapena bete ostean atera dira kalera. Gaur egun, 67 dira doktrina hau aplikaturik kartzelan aurkitzen diren presoak. Horietatik 54 kondenaren luzapena ari dira betetzen, eta beste 13ri doktrina aplikatu zaie ezarri zitzaizen kon-



Zigor osoa beteta kalean egon beharrean, doktrina honen pean dago espetxeraturik oraindik Ramon Uribe.

## DOKTRINA, DATUTAN

**Gaur egun, 67 dira doktrina hau aplikaturik kartzelan aurkitzen diren presoak**

dena bete aurretik. Beste 4 lagun kalean daude, baina

doktrina ezarria dute”. Egoe-ra honetan dago, Ramon Uribe herritarra. Zigor osoa beteta kalean behar zuen jada, baina espetxeraturik jarraitzen du.

Honen aurrean, Auzitegi Konstituzionalak hartutako erabakiak zeintzuk diren ere jasotzen du mozioak: “47

erabaki jakinarazi ditu (beste 20 kasu erabakitzeke). Horietatik 3 tramitera hartzea ukatuak izan dira, 22 tramitera onartuak, eta beste 3ren kasuan anparoa onartua izan da, hiru preso hauek kalera atera direlarik. Beste 19 kasu ukatuak izan dira”.

## Afagi elkartekoen mozioa aurrerago bozkatzea erabaki dute

**A**fagik, Gipuzkoako Alzheimerdunen eta Bestelako Dementziadunen Sentitartekoen eta Lagunen Elkartek mozio bat tramitatu zuen, otsailaren 26an burutu zen osoko ohiko bilkuran, udalbatzak eztabaidatu eta onar zezan. Usurbilgo Udalari “Alzheimerrarekiko hiri solidarioan” bilakatzea eskatzen zion testuak. Baina mozio

hau azkenean, beste pleno batera eramatekotan geratu ziren, gai honen inguruko “informazio gehiago eskatu nahi dugulako”, Mertxe Aizpurua alkateak zioenez. “Ez dakigu zertara konprometitzen gaituen”, gaineratu zuen. Eta honenbestez, informazio gehiago izan ahala, hurrengo osoko bilkura batera eramateko proposamena egin zuten gobernu taldeak.

Horregatik, ez zen mozioa onartu edo alboratzeko aurreikusitako bozketarik izan. Testua hurrengo pleno batean tratatzearen inguruan bozkatu zuten udal taldeek. Emaizta, honako hauxe: Bildu, Aralar eta EAJ-PNV alde. Hamaikabat eta PSE-EE abstenituta. Gehiengo osoak hala erabakita, mozioa beraz, hurrengo saio batean aztertuko dute.

# Buruntzaldeko enplegu plana aurkeztu dute udal ordezkariak

**B**uruntzaldeko Enplegu Plana aurkeztu zen aurreko astean Andoaingo udaletxean. Bertan izan ziren plan hau abian jarri duten sei herrietako alkateak: Ana Carrere (Andoain), Andoni Gartzia (Astigarraga), Luis Intxauspe (Hernani), Pablo Barrio (Lasarte-Oria), Mikel Pagola (Urnieta) eta Mertxe Aizpurua (Usurbil).

Ana Carrerek azaldu bezala, “2012aren hasieran ikusi genuen eskualdeko herri bakoitza bere aldetik genbiltzala enplegu gaiei zegokienean, ez zegoela gure artean inolako koordinaziorik. Horren aurrean, iazko maiatzean eskualdeko lankidetzaren protokoloa sinatu genuen, eta hortik hasita, Enplegu Plana diseinatu da sei herrientzat”.

Prozesu horren baitan, alde batetik, diagnostiko sozioekonomiko kuantitatibo bat egin da, eta bestetik, mahai sektorial bakoitzeko eragileen proposamenak jaso dira.

## HIRU ILDO NAGUSI

Martxotik aurrera abian jarriko den Enplegu Planak 484.772 euroko aurrekontua du; kopuru horretatik 334.000 euro Lanbidek hartzen ditu bere gain. Sei proiektu biltzen ditu planak, hiru ildo nagusitan banatuta.

Enplegu eta formakuntzaren atalean, bi proiektu aurreikusten dira: Leitzarango Turismo Aktiboko Zentroa, batetik, eta Hiri eta industri hondakinen kudeaketa, bestetik. Bigarren lan ildoak autoenpleguarena da: bederatzi enpresa berri sortzeko aholkularitza eskainiko da; hain zuzen ere, zerbitzu hau martxan dago dagoeneko, eta Andoaingo Urigain kultur etxean egin liteke eskaera. Azke-



Aurreko astean egin zen Enplegu Planaren aurkezpenean Andoaingen. Ezkerretara dago Mertxe Aizpurua, Usurbilgo alkatea.

nik, kontratazioa sustatzea helburu duen ildoak legoke; besteak beste, langabetuak kontratatzeagatik diru-laguntzak emango zaizkie enpresei.

Zerbitzu guztiak eskualde osoko herritarrentzat izango dira, eta proiektu horietatik sortuko diren lanpostuak eskualde mailan banatuko dira.

## JARRAIPENA BEHAR DU

Aipatu bezala, Buruntzaldean ez zegoen arlo honetan inolako aurrekaririk; hain zuzen ere, Buruntzaldea da Euskal Autonomi Erkidegoan enpleguaren arloan eskualde mailako inolako egiturarik ez duen eskualde bakarra. “Hutsetik hasita egin den proiektu bat izan da, eta zentzu horretan, udal teknikariei bereziki lan handia eskatu die”, azaldu zuen Andoaingo alkateak. Gaineratu zuenez, Lanbidetik oso epe zorrotzak jarri zizkieten, eta zentzu horretan ere ahalegin berezia egin behar izan zen. Baina emandako erantzuna oso ona izan da. Oso modu positiboan baloratzen dugu sei herrietako teknikarien zein udal ordezkarien artean sorturiko elkarlana”, azpimarratu zuen Ana Carrerek, “eta plan hau epe motzerako izan arren, amaitu ondoren ere lanean jarraitu behar dugu, langabezia-

ri aurre egin beharra baitago ezinbestean. Beraz, zentzu horretan hausnarketa egin behar da hemendik aurrera eman beharreko pausoak zein diren zehazteko. Edozein kasutan, orain abian jartzera goazen plan hau etorkizunean eman go diren urrats horientzat oinarri izango da, dudarik gabe”.

## PROIEKTUAK

### Enplegua eta formakuntza

Leitzarango Turismo Aktiboko Zentroa:

6 lan kontratu / 116.876,63 euro.

Hiri eta industri hondakinen kudeaketa:

6 lan kontratu / 103.353,89 euro.

### Autoenplegua

9 enpresa berri sortzeko aholkularitza:

14 lanpostu / 56.490,00 euro.

### Kontratazioarako laguntzak, Herritarrentzako zerbitzuak

Enpresak: kontratazioengatik laguntza zuzenetarako deialdia: 51 lan kontratu / 203.599,48 euro.

### Enpresen azterketa zerbitzua

2 lan kontratu / 68.521,49 euro.

### Usurbilgo Udala, mendi bideen errekupeazioa

2 lan kontratu / 31.246,37 euro.

## Langabeak kontratatzeko dirulaguntzak izango dira Donostialdean

**O**tsailaren 26an eskualdeko alkate guztiak lankidetzan aurkezturiko Enplegu Planaren barruan, egungo egoeran enplegua sustatzeko, kontratazioak egiteko dirulaguntzak eskaintzen dituzte eskualdeko enpresa, profesional eta laneratzea sustatzen duten erakundeentzako.

Kontratazio hauek egiteko epea hurrengo martxoaren 4tik -Aldizkari Ofizialean argitaratuko den eguna- ekainaren 30 bitartean izango da eta hautagaien hautaketa Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez egingo da.

Dirulaguntza 2013ko martxoaren 4tik irailaren 30a bitartean kontratatutako hilabete oso bakoitzeko itzulketarik gabeko 641,40€koa izango da.

Kontratazio hauek, lanaldi osorako dira eta gutxienez 6 hilabeteko iraupena izan beharko dute. Kontratatu ahal izango diren langileak eskualdeko Udalerriaren batean erroldatuak egon beharko dute eta lan eskatzaile moduan ere izena emanda egon beharko dira Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan.

### ekainaren 30a baino lehen

Enpresa edo profesional interesatuek eskaerak aurkezteko epea ekainaren 30 arte izango dute, eta Andoaingo Udalaren Sustapen eta Gazteria Saileko erregistroan egin beharko da (La Salle etorbidea 6. Urigain etxea).

Informazio gehiago: Josune Mujika (943371951), enplegu@usurbil.net

# Udarregiren eraikin berriko azterlana, behin betiko onartua



Agerialdeko eremuari dagokion xehetasun azterketa behin betiko onartu da.

kastolako eraikin berria egiteko Arau Subsidiarioetako Agerialde eremuari dagokion xehetasun azterketa behin betiko

onartu zen, otsailaren 26ko osoko bilkuran. Bozketak: Bildu eta Aralar alde, PSE-EE eta EAJ-PNV abstenituta eta Hamaikabat aurka.

## Sagastien kimaketari buruzko ikastaroa, hiru ordukoa eta doan

**A**lkartasuna Kooperatibak antolatu du ikastaro hau, martxoaren 9rako. Lau orduko iraupena izango du: 9:00etan hasi eta 13:00etan amaituko da. 2 ordu teoriko eta beste bi praktiko izango dira. Doan eman daiteke izena, [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) helbidera idatzita, Alkartasunako egoitzara joanda edo 943 361 114 telefono zenbakira deituta.



Alkartasunak antolatu du ikastaroa.

## Saharar herriarekiko elkartasuna

**E**statu sahararra aldarrikatu zuteneko 37 urte betetzen dira otsailaren 27 honetan. Urteurren honi lotuta, saharar herriarekiko elkartasun adierazpena aho batez onartu zuen udalbatzak, aurreko astean burutu zen osoko ohiko bilkuran. PSE-EE udal taldeak aurkezturiko testuak jasotzen duenez, "Usurbilgo Udaleko udalbatzak saharar herriari bere elkartasuna adierazten dio eta isolamenduarekin eta bizi duten defizit humanitarioarekin amaitzeko irtenbidea bilatzea eskatzen dio estatu espainiar eta marokoarrari. Era berean, Alkateari Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoko bandera jartzea proposatzen zaio otsailaren 27an udaletxean, estatu sahararra aldarrikatu zeneko 37. urteurren egunean". Banderara egun horretan udaletxeko balkoian eskegi zuten.

### ELKARTASUNA INDARTZEN

Udalbatzaren babes osoa jaso zuen mozioa PSE-EEko bozeramaile Ricardo Crespok irakurri zuen. "Duela hamarkada askotatik herri euskaldun eta herri sahararraren artean, elkartasunean eta Giza Eskubideak errespetatzeko beharrean oinarritua dagoen elkartasuna indartzen lagunduko duen keinua izango da", bandera jartzearena, dio testuak. Sahararrek duten autodeterminazioarako eskubidea oraindik ez dela gauzatu ere gogorarazten da bertan. Artean, sahararrak 40 urte horma batek zatituriko bi zonaldeetan banatuta bizi direla salatzen du mozioak. Bozeramaile sozialistak, testu honekin, "Euskadiko elkarte batzuen eskaerari ahotsa eman diogu" adierazi zuen.


**LAUKOTE**  
okindegia  
kafeteria  
LAUKOTE  
Puntapax 16, behea 943 360 980

**WHEEL AKADEMIA**  
Talde murriztuak eta  
pertsonalizatuak  
• Lehen eta Bigarren hezkuntza  
• Batxilergoa • Selektibitatea  
• Lanbide heziketa  
• Ikasketa teknikoak • Hizkuntzak  
629944690  
Galtzaragaña 1, behea USURBIL

**Javier Orbegozo**  
• ITURGINTZA  
• GASA • BEROKUNTZA  
659 602 789  
943 37 29 37  
Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL

**Patri Jatetxea**  
K/nagusia 14. © 943 362 725

# Laburbira hemen da



Argazkian, "Elkarteak" film laburreko aktoreetako batzuk.

**B**adator edizio borobiler, hamargarrenen heldu den euskarazko film laburren urteroko emanaldia. Aurten lehenago, martxoaren 13rako antolatu du "Laburbira" ekimena, NOAUA! Kultur Elkartek. Arratsaldeko 19:30etan Sutegiko auditorioan. Sarrera doakoa izango da. Guztira, azken urteotan ekoitzi diren euskarazko zortzi proiektio ikusteko aukera egongo da. Ordubete pasatxo iraungo du emanaldiak.

Usurbilgo saioa, Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak Euskal Herrian barrena antolatu duen zirkuitu baten barruan kokatzen da. Guztira, 20 herritan antolatuko dute film laburren proiektzioa. Euskarazko ikus-entzunezko pro-

dukzioa ezagutarazi eta herrietako kultur eskaintza aberastea du helburu, ekimen honek. Hauek dira, 2013ko Laburbira emanaldiko izenburuak:

"BEERBUG" (8'), Ander Mendia Etxebarria.  
 "DESENTXUFATUAK" (9'45'), Bernues anaiak.  
 "DEUS ET MACHINA" (8'30'), K. Almandoz.  
 "OINAZE EGOITZAK" (9'30'),  
 Erabaki Prod.: Oihan Amezuza, Karlos Ibarbia,  
 Netzer Bereziartua, Asier Sustaeta.  
 "TORTILA" (8'15'), Iñigo Lopez.  
 "ELKARTEA" (16'), Kote Camacho.  
 "HAMAIKETAKOA" (4'), Telmo Esnal.  
 "BERRIRO IGO NAUZU" (9'25'),  
 Carlos Rodriguez.

[www.topagunea.org/laburbira](http://www.topagunea.org/laburbira)

## EHGAM-ek hainbat ekitaldi antolatu ditu Usurbilen

"Trans-Bi-Les-Gay Txotx 2013" ekimena antolatu du EHGAM elkartek, martxoaren 16rako Usurbilen. Biltzeko hitzordua 18:00etan finkatu dute Donostiako Hotel Amara Plaza ondoko bus geltokian. 18:30etan Usurbilen, Txirristan abiatuko den triki-poteoarekin jarraituko dute. Ondoren, afaria Arratzain sagardotegian. Eta azkenik, 1:00etatik aurrera jaialdia antolatu dute Donostiako Doka kafe antzokian, 2ttor eta Umea MJ dj-ekin. Prezioa: 24 euro sagardotegiko afaria. 32 eurotan, afaria eta autobusa.

### Izena eman behar da aurretik

Izen emateko epea irekita dago, martxoaren 11ra arte. Euskadiko Kutxako kontu korrante zenbaki honetan egin behar dira ordainketak, nork bere izen abizenak adieraziz: 3035 0063 82 0630030222. Informazio gehiago: 667 435 570, [ehgam@yahoo.com](mailto:ehgam@yahoo.com), [ehgam.org](http://ehgam.org) edo [facebook.com/ehgam](https://facebook.com/ehgam).

## Bihurri ludotekan izena emateko azken aukera

Urteko kuota ordaintzeko epea amaitze ar dago, bazkideek 10 euro ordaindu behar dituzte eta lehen aldiz bazkide egin nahi dutenek 30 euro ordaindu beharko dituzte. Bazkide berriek, Bihurri ludotekara hurbildu behar dute izena ematera, asteazkenetan arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara.

Lehenik ordea, dirua sartu behar da Kutxaren kontu zenbaki honetan:

2101 0069 15 0012641833.

Hori egin ondoren, ziurtagiria ludotekara eraman behar da, eta "mesedez, bazkide izateari utzi nahi diotenek, giltza itzultzea eta izen abizenak ematea eskertuko genuke, bazkideen kontrola erabatekoa izan dadin", adierazi digute Bihurriko guraso batzuk.

Dena den, zalandaren bat argitu nahi duenak edo informazio gehiago eskuratu, deitu dezala 655726680 telefono zenbakira edo e-mail bat igorri dezala helbide honetara:

[bihurriludoteka@gmail.com](mailto:bihurriludoteka@gmail.com)

# Neska nahiz mutilentzat, *dancehall* ikasteko tailerra

**M**artxoaren 9an, 17:00etan Dancehall Tailerra antolatu du Usurbilgo Gaztetxeak. Raquel Koroma dantzariak eskainiko du saioa gaztetxean bertan. Izen emateko deitu 627 285 904 telefono zenbakira edo idatzi [usurbilgogaztetxea@gmail.com](mailto:usurbilgogaztetxea@gmail.com) helbidera. Tailerra hiru ordukoa izango da. Prezioa, 15 euro.

"Animatu pagotxa handia da eta aldakak inoiz ez bezala mugituko ditugu eta! Neska nahiz mutilentzat da, denok har dezakegu parte! Animatu eta zabaldu berria!", luzatu dute gonbita Gaztetxetik.

Dancehall zer den ere azaldu dute: "Reggae mota bat da, baina gehiengoak entzun ohi duena baino askoz ere erritmo azkarragoak ditu. Raquel karrera luzeko dantzaria da, eskarmentu handia du irakasle-lanetan, eta nazioarteko artista askorekin egin du dantza. Egun, Londresen ari da lanean, eta egun batzuetarako itzuliko da Euskal Herrira. Orain-



Hiru orduko iraupena izango du tailerrak.

goz, Euskal Herrian emango duen Masterclass bakarra izango da Usurbilgoa. Izugarrizko luxua izango da bera gure artean izatea. Gorputza askatu eta kriston ariketa egingo dugu, arratsalde ederra pasatzeaz gain. Beraz, animatu eta eman izena, izen-ematea jada zabalik dago eta".

# Imanol Zaldua, Perot enpresako langilea

## “Erakundeen laguntza behar dugu”

**Z**izurkilgo Huyck Wangner (Perot) enpresako langileak, martxoaren 7ari begira daude. Ostegun honetan jasotzekoak dituzte, kaleratuak izan direla jakinarazten dieten gutunak. Lantegia itxi eta lanik gabe geratuko zirela jakin zutenetik, urtarrilaren 21etik, greba mugagabea daude. Bat eginik guztiak, ia ehun langileak. Honen guztiaren atzean, enpresa taldearen estrategia dagoela salatzen dute, Zizurkilgo plantan orain arte irabaziak baino ez baitira egon. Lan gatazka konpontzeko erakundeen inplikazioa eskatzen dute. Langile kaltetuen artean badira Usurbilgo bi herritar. Haie-tako batekin hitz egin du NOAUA!-k.

### Urtarrilaren 21ean jakinarazi zitzaizuen enpresa ixteko erabakia. Bat batean?

**Imanol Zaldua.** Ostiral batean komentatzen dute, astelehenean bilera bat dagoela Astorian, Donostian. Hara joaten gara eta esaten digute hilabetera lantegia itxi egingo dela. Ordu-ra arte normal ari ginen lanean. Dena ondo zihoan. Urtarrila heldu eta hau.

### Gaur egun, langileok zer egoeratan zaudete?

Greban gaude gu, kaleratuak izan arte. Berez, hilabeteko kontsulta epea otsailaren 25ean bukatu zen, akordiorik gabe. Gero lege, hamabost egun dituzte kaleratze eskutitzak bidaltzeko. Martxoaren 7an agortuko da epea. Orduan bidaliko digute eskutitza. Burofax bat ailegatuko zaigu eta jada kalean egongo gara.

### Egoera honen aurrean, bide judizialera jotzeko asmoa duzue?

Martxoaren 7ra arte oraindik,



Bi usurbildar daude Huyck Wangner Peroten lanean. Imanol Zalduarekin aritu gara solasean.

### IMANOL ZALDUA

*“Denok bat eginda gaude. Denak kalean gaudenez, denok batera goaz”*

negoziaketa batzuk egongo direla pentsatzen dugu. Baina bai, gure planteamendua epaitetara joatea da, EEE-a balio gabetu dezaten eskatzeko. Enpresak ez du mugitu ezer, ez du ezertarako borondaterik izan. Enpleguko ikuskatzaileekin egon gara, Eusko Jaurlaritzarekin. Ia inplikatzaren diren. Gure alde daudela diote. Ez dakit argazkian ateratzeko edo benetan zerbaitegiteko den.

### Eusko Jaurlaritzak badu eta eskumena, egoera honetan zerbaitegiteko?

Hori da. Azkenean gure alde daudela diote, lagunduko gaituztela, euren esku dagoen guztia egingo dutela. Ia zer egiten duten. Guk eurak inplikatzeari nahi dugu. Erakundeek laguntza behar dugu hau aurrera eramateko.

### Langileen artean zer giro dago?

Oso giro ona dago, lan taldeak osatu dira, eta denok bat eginda gaude. Denak kalean gaudenez, denok batera goaz. Pankartak eta kartelak jartzen egon gara, larunbatean manifestazioa egin genuen Tolosan, hedabideetara eta udaletxeetara joan gara...

### Mobilizazio desberdinak burutu dituzue. Zeintzuk dira antolatutako hurrengo hitzorduak?

Astelehenero egiten dugu asanblada eta bertan erabakitzen dugu aste osoan zer egingo dugun. Enpresarekin negoziaketak zeudenean, kartelak eta pankartak, kotxe karabana antolatu, sinadurak bildu, enpresako ateetan kanpaldia egiten aritu gara... Hedabideetara joaten saiatu gara gure iritzia emateko. Ahalik eta oihartzun handiena izaten saiatuko gara.

### Erakundeetan baita, aurkeztu dituzuen mozioen bidez?

Bai. Negoziaketa bilera batean, Astorian gure protesta egiten ginela, Iñigo Urkullu lehendakaria Donostiako San Telmora zetoirela jakin genuen. Unea aprobetxatu genuen, hara joa-

teko. Berarekin egon ginen. Bere esku zegoen guztia egingo zuela esan zigun. Arantxa Tapia industriako sailburuarekin hitz egingo zuela. Ia kasu egiten diguten eta ez den bakarrik argazkian ateratzeko.

### ELKARTASUN MOZIOA ONARTU DU UDALAK

Zizurkilgo kokatua dagoen Huyck Wangner (Perot) enpresako langileei elkartasuna adierazi zien udalbatzak otsailaren 26ko osoko bilkuran, "bereziki bertan lan egiten duen usurbildarrari". Bertan diharduten 81 langileetatik 75 kaleratuak izango direla jakinarazi zieten enpresako kontseilariak joan den urtarrilaren 21ean. Egun, greba mugagabea da. Erakunde publikoek inplikazioa eskatzen dute langileek, arazo hau konpontzeko. Bide judiziala jorratzea ere ez dute baztertzen. Testuinguru horretan, besteak beste, langileek euren udalerrietako udaletxeetara jo eta azken osoko bilkuran irakurri eta aho batez onartu zen mozioa erregistratu zuten. Bilduk, Aralarrek eta PSE-EEK eraman zuten osoko bilkurara.

# “Gure lantegiak urtero irabaziak izan ditu”

## Zer dago kaleratze hauen atzean?

**Imanol Zaldua.** Lantegi hau enpresa talde batekoa da. Sei edo zazpi planta egongo dira mundu osoan. Esan liteke gure lantegia dela une honetan, pertsonako produkzio altuena duen lantegia. Gure lantegia doa ondoen, urtero irabaziak ditu. Argi dago hau guztia, taldearen estrategia dela. Irabaziak izan arren, irabazi horietatik inbertsioetarako diru bat gordetzen genuen. Enpresak bost milioi euroko finantziazioa eskatu zigun, mailegu moduko bat, gero bueltatzeko. Diru horrekin gelditu da enpresa taldea. Azkenean ito egin gaituzte. Lan erreforma baliatu dute.

## Egun batetik bestera, lantokira sartu ezinik geratu zineten?



Urtarrilean itxi zuten enpresa.

Urtarrilaren 18an kamioiak etorri eta biltegiko guztia eramaten hasi ziren. Astelehena iritsi eta enpresa itxi egingo zutela. 21ean esan eta 25ean EEE-a indarrean jarri zuten. Aste osoan zer gertatzen ari zen jakin gabe egon ginen. Hilaren 25ean jada inor ezin zen

sartu enpresara. Asteburuan bi langileek bakarrik, asteburuan lan egitea egokitzen zitzaigulako. Han egon ginen, beste inork ezin zuen sartu. Barrera jarrita, segurtasun zerbitzuarekin. Autoa kanpoan utzi eta guk oinez sartu behar izan genuen lantokira. Eta gero jada astelehenetik aurrera inork

ezin izan zuen sartu lantokira, itxita baitzegoen. Han sarrean, etxetxo bat jarria dugu, egun osoan guardian gaude, makinak eta eraman ez ditzaitez. Makinak eramaten badi-tuzte, akabo. Han gaude zain-tzen, taldeka, txandatu.

## Produkzioa badaramatelako?

Gu ondo ari ginen lanean. Baina gu “merkeenak garenez”, eta beraiek gure lantokia itxia erabaki dutenez, Italia, Alemania eta Austriara banatu dute lana. Enpresa ondo zihoala zioten. Eta orain egun batetik bestera hau guztia. Enpresa taldearen estrategia bat da hau. Guri lan ikuskatzaileak esan zigun, enpresak ez zuela boron-daterik negoziatzeko eta txosten negatibo bat egingo diotela enpresari. Ia horrek laguntzen digun.

## Erraustegiari bultzaka, bertan behera uzteko

**E**rrauste planta egitasmoa behin betiko bertan behera uzteko azken bultzada ematera deituak zeuden herritarak Dema plazan, igande eguerdian. Usurbil Zero Zabor (UZZ) taldeak ekimen berezi bat antolatua zuen bertan. Hasteko, 2010eko Santxabelak zaintzen aritu zen jaietako maskota berreskuratu zuten. Urte hartan, errauste planta bat zintzilikatu zuten. Eta noski, jaien amaieran, maskota hura ez zuten erre, aurrerago berrerabiltzeko gorde zen. Martxoaren 3an atera zuten berriz kalera, Dema plaza erdira hain zuzen.

Ekitaldiaren une garrantzitsua, ordubatak ingururako zegoen iragarria. Ordura arte, errauste plantari bultza eginez banaka, binaka, taldeka ateratako argazkietako herritarak



“Atez ate dudibe” abestia ere entzun zen igandean.

(usurbilzz.wordpress.com helbidean ikusgai) denak batu ziren, errauste planta txikiaren inguruan. Egitasmo hau behingoz bertan behera uztea eskatzeko argazki erraldoia atera zuten guztiek. Bertan behera uzteko azken bultzada irudikatu zuten argazkien bidez, baina baita musikarekin ere. Euskal kante horretarako eta gehiagorako ematen baitute.

Dema plazan bildutakoak,

“Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan, ikusiko dek nola nola laster eroriko dan” abesten entzun genituen, antolakuntzak plazan bertan jarritako oholztan, trikitilarien eta Asier Azpiroz zubietarraren bertsoez lagunduta. Bertso eta argazki artean, hitza hartu zuten baita antolatzailerek. Ozen aldarrikatu zuten beste behin, ez dutela erraustegirik nahi, ez hemen eta ez inon.

## Errauskailuaren aurka, eskualdeko alkate gehienak

**E**z dugu errauskailurik nahi; inon ez”, adierazi zuten aurreko astean Zubietako errebote plazan bildu ziren eskualdeko udal-letako ordezkariak. Zubietako, Usurbil, Donostia, Lasarte-Oria, Andoaingo, Astigarraga eta Hernaniko udal ordezkariak, gipuzkoarrei zuzenduta, arduraz jokatu eta errausketaren aukera behin betiko alboratzea eskatzen diete. Errauskailuek eragiten dituzten osasun arazoez ohartarazi eta gogora ekarri zuten Madrillgo Carlos III Institutuko ikerlariek adierazitakoa: “errausketak nabarmen handitzen du minbizia izateko aukera, inguruko herritarren artean”.



# Musika Txokoko haurrek emanaldi berezia eskainiko dute Soinurbilen

Asteburuan hasiko da IX. Soinurbil Musika Astea. Aurten go egitarauan bada, emanaldi berezirik. Lehen aldiz, Zumarteko Zubietako eta Usurbilgo taldeetako Musika Txokoko 16 haur ikusiko ditugu ipuin musikatu batean parte hartzen. Martxoaren 12an, 18:00etan Sutegein. Emanaldiaz eta Musika Txokoaz galdetu diogu, irakasle Araitz Larreari.

## Zer egiten duzue Musika Txokoan?

**Araitz Larrea.** 4-7 urte arteko 60 bat haur inguruk parte hartzen dute. Musika bizi eta sentitzen irakasten dugu. Taupada, musika barneratzea asko lantzen dugu.

## Haur txikiek ari gara. Zer moduz moldatzen dira?

Beraiek nahi duten moduan mugitzera ohituta daude. Erritmo konkretu bat mantentzea kostatzen zaie. Klasean, erritmo hori lortzen saiatzen gara, landuz, sentituz. Behin ondo sentitzen dutenean, orduan esaten diezu, egiten dugun hau beltza da, edo bi kortxeak dira. Orduan segituan erlazionatzen dute gauza bat bestearekin.

## Klase egun bat deskriba ezaazu.

Kalean erabiltzen ez diren oinetakoak erabiltzen ditugu. Etortzen direnean denak borobilean esertzen dira. Taupadekin hasten gara, baina baikoitzak bere izena esanez. Gero notak irakurtzera pasatzen gara. Abesti berriren bat dagoenean, ipuin, dantza eta marrazkiak egiten dituzte.

*“Ez dut asko aurreratu nahi baina ipuina, musika eta mugimendua uztartuko ditugu”*



Zumarteko Musika Txokoan aritzen da irakasle lanetan Araitz Larrea.

Eta bitartean abestu egiten dugu, hori baita interesatzen zaiguna. Agian abesten dugu kanta bat hogeitaldiz, baina beraiek ez dira konturatzen.

## Soinurbileko zuen emanaldiak ere osagai horiek izango ditu, ipuina, musika. Zoologiko batean girotua egongo omen da?

Ipuina, musika eta mugimendua uztartuko ditugu. Ez dut asko aurreratu nahi. Beraiek ere ez dakite ipuina. Ez diet kontatu ipuina, Sutegeiko emanaldian arreta mantentzeko. Bestela ipuina badakite, aska zer gertatu daitekeen. Esango dudana da, zoologikora doan musika eskolako talde bat dela. Animalia desberdinak ikusten dituzte zoologikoan. Abesti desberdinak entzuten dira. Gero instrumentu bat ikasten du ikasle batek.

Oihanera joaten da. Hortik aurrera... asteartean.

## Jendaurreko zuen lehen saioa izango da?

